

Euskal Herriko juduez beste zer bait

Deia, 1983-07-16.

Joan den egunean "Juduak Euskal Herrian" gaiari zegozkion berri nagusi batzu eman nituen.

Gain gainerik emandako begirada besterik ez zen izan.

Lan honek eraginda, euskal idazle trebe eta jakintsu den Antonio Labayen jaunak, honek 1974ean argitaratu zuen, eta nik ezagutzen ez nuen, liburuxka polit bat bidali dit.¹ Eskertzen diot oparia tolosar ospetsuari; bi alderdi ditu nire eskertze honek: bat, neuretzat jakingarri direnak irakur ahal izan ditudalako, eta bi, horien puntu nagusienak irakurleei emateko gaitzen nautelako.

Nafarroako erregeak begirune on handiarekin hartzen omen zituzten juduak herrian, eta ez bakarrik lehengoan aipatutako herrietan sortu zituzten juduterietan bakarrik, baita erregen etxetan bertan ere: Doña Toda, Sancho Garciaren alarguna, X gizaldian, sendagile on batez behartu zenean, Rabbi Abu Aben Nasdai ospetsua izan zen deitua, Cordobako Kalifatoan handi bezala ezagutuaz zen medikua. Santxo Azkarrak, bere gazteluak zaintzeko ere hartu zituen. Zergabiltzaile bezala oso onak izaki, eta honetarako ere erabiltzen zituzten.

Herriak ez ziten maite, eta borroka latzak sortu ziren.

Iruñan 1274ean Nafarrieriako auzoan juduen eta Zan Zernin eta Zan Mikolas hiritarren artean gertatutako latzak sutan jarri zuten hiri zaharra. *Gipuzkoari* bagagozkio, Tolosan gertatu zen hilketa; pasadizoa bera ezaguna da, baina ez nekien zerga-bila etorri eta kalean hil zutena judua zenik; hala omen zen, Gasteizen bizi zen B. Gaon izeneko zergabiltzailea.

Aipatzen da Antonio Labayenen lan honetan gauza bitxirik: judu izatea arriskugarri zen garai horietan, Joan Antonio Mogel idazle ospetsua zeukaten batzu judu jatorrikoa bezala; Bermeoko jatorrikoa zen Alonso de Erzilla, poeta, ere bai; jakina zen Done Inazioaren garaian, juduei egiten zizkietenak gaitzesten zituela azpeitiarrak, eta, dirudienez, nolabait jatorri horri lotua zetorren familia; inkisidorearen presotegian egona ere bai.

Neuk Baionako juduak bakarrik aipatu nituen Lapurdin.

Baziren Ziburun, Donibanen eta Miarritzen ere, eta Nafarroatik lehendabizi etorriak, nonbait (1474); Baionakoei buruz, 1496an etorritakoak Portugaldik zetoztenak omen ziren, eta Luis XI garrena ontzat hartuak gainera.

Frantziak XIXgarrenean ekarritako gerra ondoren, etorri ziren juduak Gipuzkoako industriara; 1843an, Frois, Silva, Blanc, et cie. izenarekin oihal fabrika eraiki zuen Bergaran; berdin Billabonan, Silva frères, judu baionarrek; Tolosan ere bai, Rodriguez eta Salzedo israeldarrak, asko iraun ez bazuen ere.

¹ *Juduak Euskal-Errian*, Kardaberaz, 92-115.